

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ERRIBERAGOITIKO UDALA

Ondasun higiezinaren gaineko eta ondasun higiezin berezien gaineko 2019ko zerga borondatez ordaintzeko aldia

Nik, Jesús Berganza González Erriberagoitiko Udaleko alkate-lehendakariak:

Jakinarazten dut: ondasun higiezinaren gaineko eta ondasun higiezin berezien gaineko 2019ko zerga ordaintzeko moduan daudela.

Borondatezko epea: 2019ko azaroaren 11tik 2020ko urtarrilaren 10era.

Borondatezko epea bukatutakoan, ordaindu ez dutenei kuotak premiamenduko betearazte bidez kobratuko zaizkie, ehuneko 20ko errekarguarekin, Arabako zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek 28. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Halaber, zergadunei gogorarazten zaie banketxe edo aurrezki kutxetan helbideratu ahal izango dutela ordainketa, udal bulegoetan hala eskatuta.

Aurreko urteetatik ordainketa helbideratuta dutenek, zerga aurreko urteetako banku kontuan helbideratuta izaten jarraitzen badute, ez dute inolako izapiderik egin behar, udala arduratuko baita ordainketa izapidetzeaz.

Bankuko helbideratzean altarik edo aldaketarik egon bada, Erriberagoitiko Udalari horren berri eman behar zaio; baita interesduna etxebizitzaz aldatu bada ere, aurrerantzean jakinarazpenak egin ahal izateko.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Pobes, 2019ko urriaren 29a

Alkatea

JESÚS BERGANZA GONZÁLEZ